

Bazkide agurgarria:

Euskadiko DMD-DHEko presidente naizen aldetik, ongi etorria eman nahi dizut gure elkartera; **erabat konbentzituta nago zurekin gehiago ez ezik, hobeak ere izango garela.**

Gure artean zaude dagoeneko, herritar mugimendu honetan, zeinaren helburua **norbere bizitzaz askatasunez erabakitze, eta hura noiz eta nola amaitu hautatzeko pertsona oren eskubidea eskuratzea den, askatasun osoz eta Legearekin bat hautatu ere.**

Eutanasia eta suizidio lagundua legeztatzearen alde gaude, eta horren inguruko eztabaida soziala sustatzen dugu; atzerabiderik ez duten sufrimendu eta duintasun ezako egoerei amaiera ematea ahalbidetzeaz gain, oinarri gisa **pertsonak beren bizitzaren gainean autonomia –mugarik gabekoa– errespetatuko** duen lege baten alde gaude.

Hauek dira elkarrearen jarduera nabarmenenetako batzuk:

- **Tokian tokiko taldeen bilerak**, pil-pilean dauden gai edo azken orduko informazioa komentatu eta eztabaidatzeko, bizitzaren amaierarekin loturiko gaiak jorratzeko, edo jarduerak planifikatzeko.
- Hitzaldi-eztabaida eta zine-forum saioak, elkarrizketak eta abar antolatzen ditu, **herritarrak** informatzeko, eta egungo egoeraz, bizitzaren amaieran dituzten eskubideez eta gure helburuez dakiguna helarazteko.
- Lan-talde espezializatuak osatzen ditugu, zenbait eremu profesionaletan: osasuna, hezkuntza, legeak, nazioarte, etab.
- Harremanetan jartzen gara **erakunde publiko eta komunikabideekin.**
- Lankidetzan aritzen gara **beste elkarte sozial eta profesional batzuekin.**
- **Informazio-mahaiak** eta kaleko jarduerak antolatzen ditugu.
- Elkarrearen **aldizkarirako artikulua**k idazten ditugu.
- **Legeak hobetzeko** –indarrean daudenak eta etorriko direnak– proposamenak sustatzen ditugu, baita betetzen direla egiaztatze ere.
- Unean-unean egoki izan daitezkeen beste batzuk.

Zure inguruan antolatzen diren **jarduerak** jakinaraziko dizkizugu zure e-postako helbidean, eta informazio-buletinak eta DMD-DHEren aldizkaria bidaliko dizugu bertara; horien bitartez bizitzaren amaieran osasun- eta gizarte-arloetako eskubideen inguruan gure etxean, EAEn, Estatuan eta nazioartean gertatzen diren albisteen berri jasoko duzu. Horrez gain, berri guztiak kontsultatu ditzakezu www.derechoamorir.orggure **webgunean** eta Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan.

Kontsulta, ekarpen edo iradokizunak egin nahi badituzu, ongi etorriak izango dira **635 738 131** telefono-zenbakian edo e-postako dmdeuskadi@derechoamorir.org helbidean.

Deitu iezaguzu, eta **bizitzaren amaieran dituzun osasun-eskubideei buruzko arta pertsonalizatu eta aholkuak jasoko dituzu**. Horrez gain, **norbere borondatez hiltzeko gida** eska dezakezu (3 urtetik gorako antzinatasuna duten bazkideek soilik), información@derechoamorir.org helbidera idatzita, edo **91 369 17 46** telefono-zenbakira deituta

Egina baduzu zure **Aurretiazko Borondateen Dokumentua** (ABD), kopia bidali dezakezu azken helbide horretara, zure bazkide-fitxan txertatzeko. Ez da konfiantzazko beste erregistro bat baino, erregistro ofiziala (**Nafarroako Aurretiazko Borondateen Erregistroa**) osatzera datorrena; bazkide-txartela zaren aldetik, hartara areagotu egingo dira behar izatera ABD egina duzula jakinarazteko aukera, eta baita han diozuna bete dadila defendatzeko ere.

Zure inguruko atean asko lagundu dezakezulakoan gaude, herritarrak zintzo eta zehaztasunez informatu eta bizitzaren amaieran norberaren bizitzaz erabakitze eskubidea onartzearen aurka daudenen iritzi interesatu edo kontrastatu gabeei aurre egiten. Inkesta guztien arabera herritarren arteko gehiengo zabala eskubide horren alde dagoen arren, ez dugu oraindik ere eskubide hori eskuratu. Eskubide hau **persona oro eta norbanakoaren askatasuna errespetatzeaz mintzo zaigu**. Eskubide hau **guztiontzako onura da**, bereizketa politiko edo erlijiosorik gabe, eta **ez du inor ezertara behartzen**.

Azkenik, dei egin nahi diogu zure konpromiso pertsonalari, eta elkartearen jardueretan **parte hartzer**a gonbidatu nahi zaitugu (gorago aipatu ditugunetan edo beste batzuetan), betiere ahal duzun neurrian, eta zure lehentasunen arabera.

Jaso ezazu nire agurrik beroena.



Concha Castells Carrillo
Euskadiko DMD-DHEko presidentea.

Bilera-lekuak lurralde bakoitzean (deitu telefonoz, bilera egingo dela baieztatzeko)

Arabako DMD-DHE

688 851 161

Barrenkale elkarte

Aiztogile kalea, 61 (behea), Gasteiz

(sarrera Santa Ana kantoitik)

Hileko azken asteazkenean, 19:30ean

Bizkaiko DMD-DHE

635 738 131

Araba kalea 6 (erdi-sotoa), Bilbo

Hileko azken asteazkenean, 18:00etan

Gipuzkoako DMD-DHE

688 685 378

Erretiratuen Erdialde elkarte

Idiakez kalea 6, Donostia

Hileko bigarren ostegunean, 19:00etan

Euskadiko DMD-DHE

Araba kalea 6 (erdi-sotoa). 48014 Bilbo (Erregistroa: AS/G/09652/2002)

☎ 635 738 131

✉ dmdeuskadi@derechoamorir.org

@ www.derechoamorir.org